

INPLIKAZIO ETIKOAK DITUZTEN GRADU AMAIERAKO LANETARAKO (GRAL) BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEKO GIDA

A.- ARAUDIAK:

A.1.- UPV/EHU-KO araudi orokorrean ondorengo dio:

9. artikulua.– Ondorio etikoak dituzten GRALak eta UPV/EHUko Etika Batzordearen jarraibidea betetzea.

1.– Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin ikerketa jardueraren bat egitea eskatzen duten lanen kasuan, tutoreak, lana mota horretakoa dela behin identifikatuta, ikasleari lagunduko dio baloratzen ondorio etikoen garrantzia eta azalduko dio nola bete lan akademietarako indarrean dauden jarraibide espezifikoak, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen webgunean argitaratuak.

2.– Aipatutako kasu horietan, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen jarraibideetan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu ikasleak, GRALa defendatzeko gainerako dokumentuekin batera. Alderdi hori arreta bereziz gainbegiratu beharko du tutoreak. Etika Zerbitzuak, bere aldetik, jarraibideak eta prozedurak etengabe hobetzen direla zainduko du, estandar etikoak betetzea errazteko eta betetze horren justifikazioa ahalik eta arinen egiteko.

3.– Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, 8. Artikuluan xedatutakoa bete beharko da informazioa anonimoa izan dadin eta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatuko bermatzeko, baina ez da aurkeztu beharko dokumentu gehiago. Hala ere, GRALean zehazki aipatu beharko da informazio iturria, bai eta zer egin den anonimotasuna bermatzeko ere. Alde horiek arreta bereziz gainbegiratu beharko ditu tutoreak.


4.– Ondorio etikoak dituzten lanen defentsan, epaimahaiak ebaluatuko du, baita ere, bete diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak. Izan ere, ondorio etikoak ezagutzea eta jarraibideak betetzea zeharkako gaitasunak dira, ikerketa jarduerari ekiteko aukera ematen duten lanetan frogatu beharrekoak.

A.2.- BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEKO araudiak, araudi horri gehitzen dio:

Ikasle guztiek nahitaez sartu beharko dute GRALren eranskin gisa Fakultateko Batzordeak 2023ko azaroaren 29an onartutako profesionaltasun etikoaren hitzarmena.

Arautegi honi jarraiki bai GRAL tutoreek GRAL-en etika inplikazioak arreta bereziz gainbegiratu beharko dituzte eta derrigorrez ikasleek profesionaltasun etikoaren

Tutorizazio prozesu bat hastean aztertu behar dugun lehenengo gauza da zuzenduko dugun lagin horrek ikerketa edo eskuhartze lagin gisa pertsonak edota bestelako izaki bizidunak erabiltzen dituen. Erabiltzen baldin baditu ondorengo eskeman aztertu beharko genuke:



1.- Inplikazio etiko gabeko GRAL-ak

- Lagin edo partehartzaile gisa ez dago pertsonarik → Ez dute etika batzordearen baimenik behar

2.- Inplikazio etiko EZ ESANGURASUKO GRAL-ak

- Bi ezaugarri hauek bete behar dituzte:
 - Lagin anonimoa izatea: identifikatzeko inongo datu gabekoa.
 - Erreklutamendua ez-zuzena izatea: online galdetegi bidez, kartel bidez etab. baina ez aurrez aurre, horrela erantzuten dutenak identifikatzeko aukerarik ez izateko.
- EDO Etika batzordearen alde zuzeneko baimena duen proiektu baten barnean kokatzen da edo bestelako ikerketa batetik lagatako datu anonimizatuak erabiliko dira.
- Aurreko bi baldintzak betetzen badira ikasleak ZERTIFIKATU ETIKOA eskatu beharko du:
 - Non?: <https://www.ehu.eus/eu/web/ceid/formulario-de-solicitud-del-certificado-etico>
 - Zer beharko du?
 - *Izenburua
 - *Ikaslearen izen abizenak, fakultatea eta emaila
 - *Irakaslearen izen abizenak, departamentua eta emaila
 - Laburpena
 - Informazio orria ([Ikus txantiloia](#))
 - Informazio orria zabaltzeko eskaera gutuna ([Ikus txantiloia](#))
 - Galdetegia
 - *Tutorearen oniritzia ([Ikus txantiloia](#))
 - Datuen Lagatzea baldin badago hauen deskribapena eta lagatze dokumentua
 - GRAL-a proiektu baten barruan sartzen bada, proiektua zuzentzen duen pertsonaren gutuna, proiektuaren ebaluazio kodea eta GRAL-a barne hartzen duela adieraziaz. Baita proiektuaren laburpen eta helburuak ere
 - Oharra: Tramitazio honen epea 2-5 lan egun ingurukoa da
 - Oharra: agiri guztien txantiloiek [Tutoretzapeko ikerketen inplikazio etikoak](#) dokumentuan era aurki ditzakezue

3.- Inplikazio Etiko esanguratsuak dituzten GRAL-ak

- IIEB Formularioen bitartez tramitatu beharko da:
<https://www.ehu.eus/formulariosCEID>
- Informazio gehiago: <https://www.ehu.eus/eu/web/ceid/gizakiekin-lotutako-ikerketarako-etika-batzordea-gieb/prestakuntza-eta-argitalpenak>

Bidea edozein dela ere, IKASLE GUZTIEK sartu beharko dute GRALaren eranskin gisa Fakultateko Batzordeak 2023ko azaroaren 29an onartutako [profesionaltasun etikoaren dokumentua](#).